



3 POLITIKA

Aderdiak igandeko hauteskundeetara begira

Asteazkenean azoka eguna baliatu zuten alderdiek kanpaina egiteko. PSE-EE, EHBildu, EAJ eta Ezker Anitzako kideak izan ziren informazioa banatzen. PSE-EE eta EHBilduko zinegotzi guztiak izan ziren kalean, tartean Pablo Barrio alkatea eta EAJko Estixu Alkorta alderdiko beste kide batzuekin izan zen. Igandean herritarrek bozka emateko aukera izango dute ohiko lekuetan 9:00etatik 20:00etara.

4 LITERATURA

Irakurle txokoaren lehenengo ikasturte arrakastatsua

Irailtik hilero elkartu da herritar talde bat Uxue Alberdi bertsolari eta idazlearen gidaritzapean liburu bat ardatz hartu eta honen inguruan solasean aritzeko. Tartean hitzordu batzuetara idazleak ere gonbidatu dituzte, Miren Agur Meabe, Harkaitz Cano, Irati Jimenez eta Eider Rodriguez. Ikasturteko azken saioa egin ostean balorazioa oso positiboa da eta datorren urrian gogoz ekin nahi diote berriz ekimenari.



Landaberri eta Sasoetako 5. eta 6. mailako gaztetxoak ederki moldatu ziren bertsotan Manuel Lekuonako emanaldian erakutsi bezala.

Bertsotan euren trebetasuna erakutsi zuten Landaberri eta Sasoeta-Zumaburuko 5. eta 6. mailako ikasleek. Ikasturtean zehar Unai Muñoa bertsolariarekin lantzen dute bertsolaritza eta asteazken arratsaldean eskainitako bi emanaldietan erakutsi zuten ikasitako guztia. Bertso paper lehiaketako irabazleen izenak ere jakitera eman ziren emanaldian.

Gipuzkoako Bertsotzale elkartearen ekimena da "Gu ere bertsotan" eta ikastetxeetan bertsolaritza lantzea du helburu. Herrian Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu eskoletan eskaintzen da, Udalaren babesarekin, eta honetan 256 ikasleek parte hartu dute aurtan.

5. eta 6. mailan eskaintzen den irakasgaia da eta hamabostean behin Unai

Muñoa bertsolaria arduratzen da eskolak emateaz. Zehazki aurtan Landaberrin 8 talde aritu dira, 5. mailan 98 ikasle eta 6. mailan 99. Sasoeta-Zumaburun berriz, hiru talde izan dira, 5. mailan 24 ikasleekin eta 6. mailan 35.

Ikasgai honen azken helburuetako bat hain zuzen kurto bukaeran egiten den jaialdi berezi hau da. Honen bitartez, bertsolaritzaren

bueltan lanean jardun diren neska mutileri jendaurrean aritzeko aukera eman nahi zaielako proiektio publikoan trebatu daitezten.

Asteazkenean, oholtza gainean ederki moldatzen direla erakutsi zuten.

Bertso paper lehiaketa

Haien gustuko gaiak oinarri hartuta, bertsoak prestatu zituzten eta hauek repeatzea ere animatu ziren talde batzuk.

Aipatu behar da dotore jantzita agertu zirela gaztetxoak saiora besteak beste, baseritarrez jantzita batzuk, raperoz, musikariz...

Bertsolari zaharrak, etxeko lanak, oporrak, Unai Muñoa irakasleari buruz ere bertsoak

egin zituzten. Musika taldeei buruz aritu ziren eta batzuek aukera baliatu zuten irakasle zein gurasoei hainbat eskaera egiteko, paga gehiago, etxekolan gutxiago...

Bertaratutakoen txalo zaparradak eragin zituzten talde guztiek.

Hau guztiaz gain, urtero egin ohi den bertso paper lehiaketako irabazleak ere jakitera eman zituzten.

Landaberriko lehenengo saria Beñat Carbayeda ikaslearentzat izan da eta bigarrena Nerea Calvok eskuratu du. Sasoetako irabazlea berriz, Iñigo Luna izan da eta bigarren saria kasu honetan, talde batek lortu du, Kendal Guijar, Mikel Monteiro eta Ivan Mateosek osatutakoa.



IEFPS USURBIL GLHBI



Aurematrikula maiatzaren 27tik ekainaren 6ra

Goi-mailako Erdi-mailako HEZIKETA ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administraritza



Energia eta ura

Mantenimientua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Neure kabuz



Asier Odriozola

Europa

Ordu batzuk besterik ez dira falta hauteslekuak ireki ditzaten. Oraingoan Europar Parlamentua osatuko duten gizon-emakumeak aukeratzeko deialdia da. Deialdiak deia du oinarrian eta hauteskunde hauetarako hotsa, ia beti bezala, ahopekua izan da.

Europa ahotan denean, bereziki politikoen ahotan, eztabaida ez da ohikoa bezain zaratsua izaten. Begi bistakoa da nahiz lau haizetara Europar Batasunaren garrantzia aipatzen dugun guztiok eta nahiz jakin gure eguneroko bizitza moldatuko duten erabaki asko eta asko Bruselako erakundeen gela grisetan adosten direla, begi bistakoa da nioen bezala, ez dugula horretan sinesten. Oraindik ere garai bateko eskemei lotuta gaude. Nork badu bere ikuspuntu eta begiko talde politikoa eta hark dituen betiko aierio, sesio eta gorabeherak zaizkio inporta, ez urruneko egiten zaizkigun lurraldeetan egosten diren kontuak. Erratuta gaude seko, bai, baina hor gaude oraindik kateatuta.

Eta horren adibide asko badaude ere ez dut uste lekuz kanpo dagoenik bateren bat aipatzea.

Herrietan, Lasarte-Orian bertan, udaleko langileek halako txapakumezko panelak jarri dituzte alderdiek beren kartelak itsasteko. Biluzik daude ia erabat. Beste adibide bat nahi? Igandean hauteskunde gaueko programa izango dugu ETBn eta ahalegina egingo badugu ere, ez du beste edozein bozketako berotasunik izango. Europa osoan gertatzen da gauza bera. Erditze zaila Europako bategitearena!! Ea lar guztien gainetik heldutasunera iristeko aukera duen.

Zorion agurrak



Ander eta Aimar

Zorionak Ander eta Aimar, muxu handi handi bat familia guztiaren partetik!



Eider

Hamaika muxu handi handiak zure zorion egunean, familiaren partetik!!



Aiora

Zorionak politta! Muxu handi bat zure 9. urtebetetzean, familiaren partetik.



Maddi

Zorionak, pottoka! Ze zorionsu egin gaituzun zure lehen urtean!

Oier, Unax, aitatxo eta amatxo.



Markel

Zorionak pottoko! June eta familiaren partetik.




Aizpea eta Ekhi

Zorionak zuen urtebetetzean. Ondo ondo pasa eta muxu pila bat familiaren partetik.



Xenia eta Jaione

Zorionak printzesak!!! Txokomarrubizmo bust muxu familiaren partetik!!



Sara

Zorionak txapelduna! Muxu pilo bat familia guztiaren partetik!



Sergio

Zorionak bihotza! Urte bete! Familia guztiaren partetik muxu handi bat eta bereziki Alvaro anaiaren partetik!!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Oier Garcia Vega, maiatzaren 15ean.
- Julen Montejo Hueso, maiatzaren 15ean.
- Lucia Ruano Mazo, maiatzaren 13an.



Heriotzak

- Amparo Blazquez Nicolas, maiatzaren 17an, 91 urte zituela.
- Paula Gonzalez de Vega, maiatzaren 16an, 59 urte zituela.
- Casto Calle Ramos, maiatzaren 15an, 54 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 23	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 24	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 25	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 26	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astearte, 27	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 28	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 29	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aizpuru, Latxunbe Berri 11, Hernani, Tel.: 943 336 077

Azoka txikia

Eskaintza immobiliarioak

- Logela alokatzen da pertsona bat edo pertsona eta haur batentzat Usurbilen. 100 m. karratuko pisua. Leku onean. Prezio interesgarria. 657 535 299.
- Bi garaje itxi saltzen dira erdigunean. 647929533 Virginia
- Garajea saltzen da erdialdean, Zapategi kalea. 14 metro karratu. Tel.: 607 491 663, Ariz.

Salerosketak

- Estreinatuta gabeko tableta saltzen dut. 7", Nevir markakoa. 200 euro negoziagarri. 680 983 527, Carlos.
- Motoa Salgai Honda CBF 600S Urtea 2004

Prezioa: 3.400 euro. Harremanetarako telefonoa, 630 032 779.

Lan-eskaria

- Pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketari lan egiteko prest Luis 698469929
- Pertsona arduratsu eta esperientzia zabala duena pertsona adinduak edo gaixoak zaintzeko eskaintzen da. Tratu ona. 680 983 527, Carlos.
- Lana bilatzen dut interna edo externa bezala haur edo pertsona helduak zaintzeko. Esperientziarekin. Harremanetarako, 600 334 021.
- Gizona garraiolari, biltegizain edo eraikitzaile edonolako lanak egiteko prest. Lan-arritsu prebentzio ikastaroa eginga. 657535299

- Neska eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko edo garbiketari lanak egiteko. Baserri zein herrian. Interna edo externa modura. Telf.: 632 987 717.
- Interna bezala lan egiteko emakumea prest. Arcadia 689376746.
- Neska lan egiteko prest. Haur edo pertsona adinduen zaintza edo garbiketari lanetarako. Ana, 622 131 664.
- Neska arduratsuak lana bilatzen du haur edo pertsona helduen zaintzarako. Erreferentziak ditu. 620 041 667.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea Ezzagire, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maitu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

HAUTESKUNDEAK



EHBilduk jarritako karpan izan zen Pablo Barrio alkatea informazioa banatzen eta handik oso gertu aritu zen Estixu Alkorta EAJko zinegotzia ere.



ELKARTASUNA

Ostateren
jaialdia
Boliviaren alde

Ostater taldeak elkartasun jaia antolatu du ADSIS fundazioak, El Alto Bolivian garatzen duen UTASA proiektuarentzat dirua bildzeko.

"Irriak elkarbanatzen" lelopean Brigitarren plazan 11:00etatik 19:00etara haurrentzako pulterak egiteko tailerra, txapa tailerra, aurpegiak margotzekoak izango dira. Tonbola solidarioa egingo da eta bizikleta bat zozketatuko da honetan. Taberna ere jarriko da pintxo eta bizkotxoekin.

Alderdiak bozka eskean

Asteazkeneko azokan alderdi ezberdinetako kideak ibili ziren kanpaina egiten

Igandean Europar Parlamentuaren osaketa hautatu behar da eta hau dela eta, azken aste honetan kanpaina egiten aritu dira alderdiak gurean. Asteazkenean, azoka eguna izaki, PSE-EEko, EHBildu eta EAJko zinegotziak ikusi ahal izan ziren euren alderdietako hautagaien inguruko informazioa banatzen. Ezker Anitzeko kideak ere izan ziren Udaltxe inguruan.

TXINTXARRI

Asteazkenean alderdi ezberdinetako ordezkariak ikusi ahal izan ziren azoka inguruan.

Bertara gerturatu ohi den herritar kopuru andana dela eta, kanpaina egiteko baliatu nahi izan zuten guztiak. Horrela izanda, aurreko astean egin bezala, PSE-EEko zinegotziek larrosak, txapak, goxokiak banatu zituzten informazioarekin batera herritarren artean.

EHBilduko kideak ere izan ziren herritarrei bozka eskatzen. Hauek karpa txiki bat

jarri zuten azokan. Zinegotziak eta Pablo Barrio alkatea aritu ziren besteak beste.

Bestalde, EAJko informazioa ere eskuratu zuten herritarrek. Estixu Alkorta zinegotzia azokatik ere ibili zen beste kide batzuekin batera.

Azkenik, Ezker Anitzeko kideak Udaltxe zaharrenean inguruan jarri ziren informazioa banatzen.

Euriak tarte batean jendea uxatu arren, alderdiek bertan jarraitu zuten.

Igandean, ohiko lekuetan bozkatu ahal izango dute herritarrek 9:00etatik 20:00etara.



PSE-EE eta Ezker Anitza kanpaina egiten.

KONTZERTUA

Alboka eta
Mendi
abesbatzen
emanaldia

Bihar Zumaburuko elizan 19:00etan kontzertua eskainiko dute Mendi eta Alboka abesbatzek.

Duela bi urte Lasarte-Oriako taldea izan zen Nafarroako herrian emanaldia eskaintzen eta oraingoan Mendikoei egokitu zaie bisita bueltatzea.

Ion Irazokik zuzentzen duen taldeak, pieza klasiko eta euskal kantak eskainiko ditu. Bukaeran bi abesbatzek elkarrekin bi abesti eskainiko dituzte.

Goizean entsegu saioa egingo dute abesbatzeta kideek eta taldeen arteko harremana indartzeko, bazkaria ere egingo dute.

Kontzertua doan izango da eta herritarrek animatzen dituzte bertara gerturatuzera.

EHBildu "herriaren berraktibazioaren alde lanean"

Udalbatzarrean PSE-EEk eskatutako enplegu plana dela eta, oharra zabaldu du EHBilduk.

"Duela hilabete onartu ziren aurrekontuetan gizarte politiken eta gure udalherriaren berraktibazio ekonomia aldeko esfortzu bat egiteko apustua egin genuen. Egun, Lasarte-Orian kokatuak dauden establezimenduen %70 baino gehiago osatzen duten komertzio, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalak sustatzen ari gara.

Zentzu horretan, 2013ko maiatzean 50 neurri onartu ziren merkatari eta ostalariekin eginiko 12 parte-hartze bilerekin eta aurki berriz ere bilerak deituko dira orain arte egingandakoa baloratu eta lanean jarraitzeko. "Tratu on bat" marka sortu dugu gertukotara

sunean eta kalitatean oinarrituriko kontsumoa bultzatzeko. 2013an irekitako eta 2014an irekiko diren establezimendu berriei laguntzeko 30.000 eurotako partida bat onartu dugu, eta Lasarte-Oriako establezimenduen eskaintza guztiak jasoko dituen webgune berri bat martxan jarriko dugu mugikorrerako aplikazioarekin batera.

Gainera, eskualde mailan ere, esfortzu handi bat burutuko da Garapen Agentzi baten sorrerarekin, egun Gipuzkoako osoan tresna hau falta duen eskualde bakarra bakarra. Eta beraz, gure aldetik egiten ari garen iniziatiba garrantzitsu bat dela iruditzen zaigu.

PSEek eskatzen duen planari dagokionean, dudarik gabe, burutuko dugu. Horretarako, alderdi guztietako kideak, sin-

dikatuek, formakuntza zentroek, Lanbidek eta arlo sozioekonomikoan aritzen diren elkarteek parte hartzen duten hilabete honetako batzorde informatiboan gaiaren inguruko lehen gerturapen bat egingo dugu helburuak eta planaren ekintza esparruak zehazteko.

Beraz, Udala ahal duen ahaleginik handiena egiten ari da, nahiz eta lan politika aktiboen inguruko eskumena Lanbide eta Eusko Jaurlaritzari dagokien. Era berean, gogoratu beharra dago joan den irailean PSE eta PNVek enplegua sustatzeko 6.250 milioi eurotako akordioa adostu zutela. Eta hori horrela izanda ere, 2013ko deialdiari dagokion 50.000 euro soilik jaso ditu Lasarte-Oriak aurten lau kontratazio burutzeko eta eskualde mailan guztira 425.831 euro 90

lanpostu sortzeko aurreikuspenarekin.

Bestetik, jakinarazi nahi genuke, komunikabideek zabaldu duten moduan, Eusko Autonomia Erkidegoan langabeziak gora egin duela. Baina, garrantzitsua iruditzen zaigu ñabardura bat egitea, Gipuzkoako lurralde historikoari dagokionean egoera hobetu eta langabezia tasa jaitsi egin baita, aldi Araba eta Bizkaian igo denean. Zehazki, gure kasuan, Lasarte-Oriako langabezia tasa %1,65 jaitsi da azken urtean.

Ondorioz, EHBildutik orain arte eginiko apustuan sinesten dugu, lanean jarraituko dugu eta alderdi politiko ezberdinen ekarpenak jasoko ditugu. Gure ustez, zentzu honetan beharrezkoa baita indarrak batzea eta elkarlanean aritzea".

ERRIGORA

Errigora
ekimena gertutik
ezagutzeko

Maiatzaren 26an Errigora egitasmoaren inguruko hitzaldia egingo da Landaberri BHI-n, 18:30ean. Bertan Errigorako kide batek proiektuaren nondik norakoak eta helburuak azalduko ditu.

Egitasmoak Nafarroa hegoaldeko euskararen inguruko hainbat proiektu diruz lagundu eta bertako produktuen ekoizleekin harreman zuzena landu nahi du. Horren adibide da iragan berri den oliaren kanpaina.

Egitasmoaren filosofiarekin bat egiten duten herritarrei hitzaldira joateko gonbidapena luzatzen zaie. Izan ere, aurrerantzean egingo diren kanpainen izango den funtzionamendua adostu nahi da.

Irakurle txokoa, literaturazaleen bilgune

Asteartean ikasturteko azken saioa egin zuten Uxue Alberdiren lana aztertuz

Irailen hasi zuen bere ibilbidea irakurle txokoak eta asteartean egindako saioa izan zen ikasturteko azkena. Hileroko hitzorduan Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria izan dute gidari bertaratutako herritarrek eta hain zuzen, bere azken lana, "Euli-giro" aztertzen bukatu zuten. Oso balorazio positiboa egin dute parte hartzaileek eta datorren ikasturtean ekimenarekin jarraitzeko asmoa azaldu dute. Udara baino lehen jakitera emango dute liburu zerrenda, oporretan irakurketak egin nahi dituztenek aukera izan dezaten.

TXINTXARRI

Lehenengo ikasturtea gaindituta, pozik azaltzen dira irakurle txokoaren sustatzaileak ekimenak izandako harrerarekin. Euskal literatura izan dute batez ere hizpide baina "Irene Nemirovsky, Virginia Woolf eta Alice Munro euskaraz irakurri ditugu ere". Euskararentzat herrian beste arnagune bat izateko sortu zen.

Saioetan 20 eta 30 lagun artean elkartu izan dira "lehenengo saioetan jende asko etorri zen, espero baino askoz gehiago. Uxue bera harritu egiten zen baina hilabeteak aurrera, pixkanaka taldea egonkortzen joan da nahiko kopuru finkoan".

Idazleen bisitak ere izan dituzte. Lehenengoa Miren Agur Meabe izan zen bere "Kristalezko begi bat" lanare-

kin eta ondoren, Harkaitz Cano "Twist"-ekin, Irati Jimenez "Nora ez dakizun hori" eta Eider Rodríguez "Katu jendea" eleberriekin.

Irakurleek zuzenean galde-tu ahal izan dizkiete idazleei euren lanen inguruko zantzak edota iritziak eman eta irakurleentzat esperientzia polita izan dela azpimarratzen dute.

Herritar batzuentzat ia euskal literaturara egindako lehenengo hurbilketa izan da eta hori ere nabarmentzeko dela uste dute sustatzaileek.

Jarraipena

Esperientzia hain positiboa izanda, jarraipena izango du. Dena ondo bidean, datorren ikasturteari urrian emango diote hasiera eta aurten bezala, maiatza arte luzatuko dute hileroko hitzordua.

"Dagoeneko irakurketak



Saioa Arrieskalleta elkartearen egin zuten izan ere, ikasturteari amaiera emateko afari-merienda egin zuten.

hautatzeko zerrenda osatzen ari gara eta uda aurretik hautatu nahi genituzke, hartara udako oporretan edo behintzat denbora izango du jendeak irakurri ahal izateko".

Uxue Alberdi izango dute gidari datorren ikasturtean ere. Eta orain arte gerturatu ez diren herritarrek honetan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte, "guztiz irekiak dira solasaldiak eta liburuak irakurri gabe ere joan daitekeela gogoratu nahi dugu".

Alberdiren Euli-giro

Asteartean egindako azken saioa berezia izan zen. Arrieskalleta elkartearen egin zuten hitzordua kultur-etxean beharrein.

Alberdiren azken lanaz hitz egin zuten "Euli-giro" eta ipuin bakoitzaren inguruan iritzia eta galderak egin zituzten ia lagun artean egongo balira bezala.

Hainbat istorioetan erabili nahi izan zuen umorea ulertu zuten galdetu zien idazleak

eta honen inguruan, luze mintzatu ziren besteak beste.

Ondoren, kide bakoitzak eramandakoarekin afari-merienda egin zuten eta horrela amaitutzat eman zuten lehenengo ikasturte arrakastatsua.

Datorren urterako hainbat iritzi jaso ziren eta emakumeen literaturata asko irakurri dela aipatu zuen parte hartzaileetako batek eta akaso datorren ikasturtean kontutan hartzeko litzatekeela.

Udaberriko bertso saioan aldaketak

TXINTXARRI

Txio txio txorrotxio Udaberriko bertso saioa izango da gaur 22:00etan Manuel Lekuona kultur-etxean.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, azken orduko aldaketak izan dira eta Maialen Lujanbio, Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi izango dira kantagintza ardatz izango duen emanaldian bertsoan arituko direnak.

Herritarren parte hartzea

Hauek lanean jarriko dituzte hainbat herritarrek eta ohi bezala ez da faltako herriko taldeen parte hartzea.

Guztira 65 lagun inguru izango dira oholztatik pasako direnak lan ezberdinetan aritzeko. Zero Sette akordeoi orkestra, Kukuka antzerki eta dantza eskolako ikasleak, Udal musika eskolako ikasleak, Aitor Atxega, Amaia Tejeria eta Jokin Ayerregaray, Txalagore taldea, Imanol Epelde eta Txorrotxioka tal-

dea dira parte hartzaileetako batzuk.

Estilo ezberdinetako musikak izango dira nagusi eta umorerik ere ez da faltako emanaldi berezi honetan.

Antolatzaileen ustetan ordu eta erdi inguruko iraupe-

na izango du gaurko bertso saioak.

Oraindik badago sarrerak erosteko aukera kultur-etxeko leihatilan 3,50 eurotan.

Antolatzaileek jendea animatzan dute honetara gerturatzera.



Udaberriko bertso saioan azken orduko aldaketak izan dira.



Beñat Gaztelumendi Añorgako bertsolaria izango da Manuel Lekuonako oholtzan.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzua Solomoa baratxuritan
Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Basurde burua

Baserri pate

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451



Astelenean egin zen ikastaroetako bat.

LO UDALA

Merkatarien formazioa sustatzen

Herriko merkatarientzat formakuntza sustatzen ari da Udala eta egun hauetan bi ikastaro egiteko aukera izan dute Aterpeko kideek. Udaleko merkataritza sailetik oso pozik daude herriko merkatariek formazio saio hauetan parte hartzeko azaldutako interesarekin.

Hirugarren sektorearen sustapenean formakuntza beharra izan da merkatarien artean egindako bileretan aipatutako gabeziak bat. Hori dela eta, otsailen "Ezagutu ezinbesteko 40 aplikazio zure negozioa kudeatzeko" izenpean bi ikastaro antolatu ziren eta 19 merkatarik parte hartu zuten.

Oraingoan aldiz, Usurbilgo Lanbide-Eskolak udalarekin

elkarlanean, bi ikastaro eskaini ditu, "Bezeroenganako Arreta" eta "Salmentarako Teknikak".

Aterpeko kideekin

Ikastaroak Aterpea elkarteak kideei zuzendu zaizkie eta haiek oso modu positiboan erantzun dute.

Sektorearentzat aurrerantzean programatu diren taldekako prestakuntzen oinarri izango da hau "Aterpearekin sinatutako esparru-akordioan jaso bezala".

Udaletik nabarmentzen dute, "Usurbilgo Lanbide-Eskolaren, Ikaskuntzako Bitartekari-tzarako Zerbitzuaren, Aterpea eta Udalaren inplikazioa eta elkarlana".

Xirimiriren ospakizun jaia

Bihar egun osoko jaia antolatu dute Okendon

Herriko Xirimiri elkartearen 25. urtebetetzea ospatuko dute bazkideek asteburuan. Bihar Okendon herri kirolak, bazkaria eta kontzertuak izango dira eta igandean berriz, marmitakoa eta Xumelarekin kantujira.

TXINTXARRI

Xirimiri elkarteak kideek bihar egun osoko jaialdia antolatu dute 25 urteak behar bezala ospatzeko. Prestatutako egitarauaren baitan azken ekintzak izango dira asteburukoak.

10:00etan, futbito partidua antolatu dute Landaberri BHI eraikineko futbol zelaietan Xirimiri-Ostadar taldeen artean.

11:30ean, Okendon herri kirolak izango dira.

Eskualdeko proba mixtoa osatuko dute Aitzaga, Irunberri, Herria eta Xirimiri elkarteetako kideen artean. Trontzan, txingatan, lokot



Egitarauaren baitan "Herri jantzia garaipenaren hazia" jardunaldiak egin ziren Elebeltzen

jokoa eta korrika lehiatu beharko dira taldeak.

Ondoren, 14:30ak aldera, Okendon bertan bazkari herrikoa egingo da. Eguraldi txarra egingo balu, Okendon karpa jarriko dela aipatu dute antolatzaileek.

Bazkalostea girotuko dute Mikel Karton musikariak eta Bertso Eskolako kideek. Egunari amaiera emateko,

22:30ean KWBD, UK BILL, AFU eta Tajon Prieto y Los Kuajolotes taldeen kontzertuak izango dira.

Igandean berriz, 11:30ean marmitakoa dastatzeko aukera izango da Okendon. 12:00etan Xumelarekin kantujira egingo da eta 14:00etan urteurren ospakizunari amaiera emango diote Xirimiriko kideek.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI

BAI

EMAN BOTOA **ehbildu**
herrikerabaki

LABURRAK.-

TXIRRINDULARITZA.-

Afaría eta argazkia

Ostadar SKT-k denboraldi amaierako afaria ospatuko du maiatzaren 31ean, 20:30etatik aurrera, Loidibarren pilotalekuan.

Tiketak salgai daude Ostadarreko bulegoan maiatzaren 26ra arte.

Ostadarreko lagunek jakin arazi dutenez, afarira joan aurretik Okendo plazan argazki erraldoia egin nahi dute, beraz, elkarteko kide eta lagunei gonbita egiten diete 20:00etan Okendora hurbiltzeko.

Kirol sustapeneko azken saioa

2013 - 2014 ikasturtean Lasarte-Orian alebin mailako neska-mulientzat garatzen ari den kirola sustatzeko kanpainan amaitzear da.

Bihar, 12:00etatik aurrera Udalararen Kirol Gunearen Atletismoko Moduluan azken saioa izango da.

Hau berezia izango da, ikasturtean zehar ikasitako praktikan jarriko dute gazteek, atletismoako zenbait proba eginez. Beraz, kirola egiteko egoki jantzita joan behar dute.

Amaieran, kirol materiala bizikleta, kometa, erraketak, etb. zozketatuko dira kurtsuan zehar ekitaldietara maiz joan diren parte-hartzaileen artean.

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideek asteburu hauetan errepediko alebin, infantil eta kadete mailako Gipuzkoako txapelketetan izan dira lehian. Emaizta onak izan dituzte alebin mailan, urrezko domina bat eta zilarrezko beste bat. Beste lasterketetan ere lehiatu dira eta hauetan ere ongi ibili dira gazteak.



Asier Pozo eta Beñat Carbayeda Gipuzkoako txapelketako podiumean. BAZPI/ESKOLA

TXINTXARRI

Alebin, infantil eta kadeteen Gipuzkoako txapelketak izan ziren maiatzaren 10 eta 17an, Tolosa, Ataun eta Irunen. Hauetan Bazpi txirrindularitza eskolako gaztetxoek parte hartu zuten eta ederki gainera, bi kide alebin txapelketako podiumean izan baitziren, Asier Pozo eta Beñat Carbayeda.

Asierrek denboraldi ederra egin du. Hainbat txapelketetan nagusi izan da eta Tolosan burutu zen Gipuzkoako txapelketan ez zuen huts egin.

Lehenengo iritsi zen helmugara Gipuzkoako txapela eskuratu.

Beñat Carbayeda ere hainbat lasterketetan lehen postuetan izan da eta Gipuzkoako txapelketan brontzezko domina eskuratu zuen.

Infantil mailan, berriz, taldeko lehen Manex Altuna izan zen. Hau zortzigarren iritsi zen helmugara.

Kadete mailako txapelketan, maiatzaren 17an izan zen Ataunen. Luken Carbayeda lehen urteko kadetea sailkapeneko lehen postuetan izan

zen ere, bosgarren eta Inigo Altuna hamargarren.

Bestalde, maiatzaren 17an, larunbatean, alebin eta infantilak Gipuzkoako taldekako erlojupeko txapelketa izan zuten.

Proba honetan alebinak Santo Tomas Lizeoa eta Landaberri-Udarregi izenean lehiatu ziren. Santo Tomas Lizeoa taldea laugarren postuan amaitu zuen lehia eta talde bezala Bazpi eraman zuen garaipena.

Infantil mailan, berriz, Bazpi taldeko gazteak bosgarren izan ziren.

Beste lasterketak

Honetaz gain, hainbat probetan ere izan dira junior eta kadeteak aste hauetan.

Esate baterako, maiatzaren 10ean, Zumaia Saria izan zuten kadeteek. Honetan Luken Carbayeda 3. postuan amaitu zuen.

Junior mailan, aldiz, hiru lasterketetan izan dira Bazpiko gazteak.

Maiatzaren 17an, Santi Kutz proba izan zen Legazpin eta Bazpiko bi gazte izan ziren lehen hamarren artean. Koldo Velasco bosgarren izan zen eta Jon Ander Unanue bederatzigarren.

Atxukale sarian, maiatzaren 11ean, Xuban Errazkin seigarren izan zen.

Azkenik, maiatzaren 10ean ere, Velasco ederki ibili zen Arantzazuko igoeran. Honetan zortzigarren izan zen. Jon Ander Unanue hamaikagarren izan zen eta Xuban Errazkin hamahirugarren.

Hala ere, ez dute atsedenik eta aste honetan ere lasterketaz lasterketa ibiliko dira eta maiatzaren 31ean Lasarte-Orian, Zabaleta auzoan hain zuzen ere, izango dira alebin eta infantilak.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 24

Michelin, 15:30ean

Ostadar-Antigua Luberrri
Emakumezkoen Liga, kopa

Michelin, 17:15ean

Ostadar-Lagun Onak
Erregional Ohorezko maila

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 23

HERRIKO TXAPELKETA

19:45ean, Indaux-Viña del Mar
20:45ean, Izkiña-Illargi

Larunbata 24

HERRIKO TXAPELKETA

09:15ean, El Punto-Izarra
11:15ean, Arizta taberna-Trumoi
12:15ean, Urdaneta-Txindoki

Galtzaraborda, Errenteria, 19:00etan

Bilkoin Legorreta-ISU Leihok
Gipuzkoako Liga, finala.

Igandea 25

HERRIKO TXAPELKETA

10:45ean, Arizta Taberna-Illargi
11:45ean, Buenetxea-Indaux

ATLETISMOA

Larunbata 24

Argantz, Burgos, 09:00etan

Herriko hainbat atletek III.
Argantzun Mendi lasterketan parte hartuko dute.

Mini estadioa, Donostia, egun osoa

LOKEko junior eta jubenil mailako atletak Euskadiko txapelketa dute.

Gasteiz, 10:00etatik aurrera

Xalba Otxandorena gaztea
Gipuzkoako selekzioarekin
Euskadiko Eskolarteko Kirol
Jokoetan izango da.

Igandea 25

Zegama, 09:00etan

Herriko hainbat atletek Zegama
Aizkorri mendi maratoin parte hartuko dute.

Goizueta, Nafarroa, 11:00etan

Herriko hainbat atleta Goizuetako
Krosean izango dira lehian.

JUDO

Igandea 25

Hernani, goiza

LOKEko judoket alebin mailako taldekako Gipuzkoako txapelketa jokatu dute.

PILOTA

Ostirala 23

Kiroldegia, 19:00etan

Lasarte-Oria-Beasain
Herriarte txapelketa. Eskuz binaka.

SQUASHA

Ostirala 23

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera
A eta B multzoko partidak.

Astelehena 26

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera
A eta B multzoko partidak.

IGERIKETA

Larunbata 24

Gasteiz, egun osoa

Buruntzaldea IKT-ko hainbat gazte
Euskadiko Eskolarteko Kirol
Jokoetan izango dira.

GIMNASTIKA

Larunbata 24

Eibar, 10:00etan

LOKEko jubenil eta senior mailako

gimnastak Gipuzkoako txapelketan izango dira lehian.

TRIATLOIA

Larunbata 24

Bilbo, Bizkaia, 13:30ean

Herriko hainbat atleta Bilbao
Triathlon 2014 proban parte hartuko dute.

ERRUGBIA

Larunbata 24

Andoain, 09:30ean

Beltzak Ostadar Jalai eskolako
kideek erakustaldia egingo dute.

Igandea 25

Kirolgunea, 09:30ea

Beltzak Ostadar Jalai eskolako
gazteek denboraldi amaierako jaia
izango dute.

BTT

Igandea 25

Zalla, Bizkaia, 09:00etan

Herriko hainbat txirrindulari
Ubietamendi BTT proban izango
dira lehian.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 24

Legorreta, 10:00etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilak LVIII Legorreta Proban lehiatuko dira.

Gopegi, Araba, 10:00etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilak Euskadiko erlojupeko txapelketan.

Lazkao, 16:00etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek LVIII Hesparru proban parte hartuko dute.

Zarautz, 16:30ean

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako alebin eta infantilek Zarautz Sarian parte hartuko dute.

Igandea 25

Biyak Bat elkarte, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Ibardinera egingo du irteera.

KIROL SUSTAPENA

Larunbata 24

Kirol gunea, 12:00etan

Lasarte-Oriako Kirol zerbitzuak eskaintzen duen kirol sustapeneko azken jardunaldia izango da.

— Agenda —

Asteburua, Lasarte-Oria



Xirimiri elkartearen 25. urteurrena

Lasarte-Oriako Xirimiri elkarteak 25 urte bete ditu. Urteurren berezi hau dela eta, hainbat ekimen antolatu ditu maiatzean zehar. Asteburu honetan, berriz, jaialdi handia izango da. Adin guztietarako ekintzak izango dira: musika, herri kirolak, erronkak, bazkari herrikoia, txapelketak... Herritarrekin batera modu paregabean 25 urte hauek ospatzeko.

ILARGI TABERNA
Ostirala 23, 22:30ean
Big Time Sound System DJ-ek musika jarriko dute: reggae, ska, soul etab.

LANDABERRI BHI
Larunbata 24, 10:00etan
Xirimiri-Ostadar futbito partida.

OKENDO PLAZA
Larunbata 24, 11:30ean
Herri kirolak. Eskualdeko proba mixtoa; Aitzaga, Irunberri, Herria eta Xirimiriren artean.
Larunbata 24, 14:30ean
Bazkari herrikoia egingo

da. Haurrek 14:00etan bazkalduko dute. Bazkaloeste girotua, Mikel Kar-ton eta Bertso Eskolako kideen eskutik.

Larunbata 24, 22:30ean
KWBD, UK BILL, AFU, Tajon Prieto y Los Kuajolotes taldeen kontzertuak.

Igandea 25, 11:30ean
Marmitako txapelketa egingo da.

Igandea 25, 12:00etan
Xumelarekin kantujira egingo da eta 14:00etan, urteurren ospakizunei amaiera emango zaie.

honetan. Sarrera, internet bidez, 3,24 euro; leihatilan, 3,50 euro.

Desfilea

LASARTE-ORIA
Larunbata 24, 18:00etan
Kukuka Antzerki eta dantza eskolako desfile erraldoia egingo du herriko kaleetan.

Dantzari txiki eguna

LASARTE-ORIA
Igandea 25, egun osoa
Erketz EDT taldeak antolatuta, XXVI. Dantzari Txiki Eguna ospatuko da.

Elkartasun jaialdia

AMA BRIGITARREN AURREAN
Larunbata 24, 11:00etatik 19:00etara
Ostare elkarteak Irriak elkarbanatzen elkartasun jaialdia antolatu du. Taillerrak, tonbola, taberna... izango dira.

Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA
Ostirala 23, 00:00etan
Francois del Mundo dj-ak musika elektronikoko ezberdinetako saioa eskainiko du.

Larunbata 24, 22:00etan
Citizen Kane eta Adrenalized taldeen eskutik Punk garage doinuez gozatzeko aukera.

ORBELA BELARDENDA

Ostirala 23, 19:00etan
Ibai Nikolaiaren djeridoo doinuak entzuteko aukera izango da. Talkalibe, Olatu Talka 2014 ekimeneko ekintzen barruan.

ko aukera izango da. Talkalibe, Olatu Talka 2014 ekimeneko ekintzen barruan.

AVENIDA TABERNA
Ostirala 23, 19:00etan
Bem Baba e Urubu taldearen reggae doinuez gozatu ahaliko da. Talkalibe, Olatu Talka 2014 ekimeneko ekintzen barruan.

ARANTZAZUKO AMA ELIZA
Larunbata 24, 19:00etan
Doneztebeko Mendi abesbatza eta Lasarte-Oriako Alboka abesbatzaren arteko elkartrukearen kontzertuaz gozatzeko aukera.

Dokumentala

ZULO ARETOA
Larunbata 24, 20:00etan
"Kampa. 20 años de sueños y escombros" dokumentala eskainiko da.

Bertso-saioa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
Ostirala 23, 22:00etan
Txio Txio Txorrotxio bertso-saio berezia antolatu du Ttakun K.E.-k. Aurten kantagintza izango da gaia. Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi eta Ane Labaka bertsolariak eta hainbat talde eta herritarrek parte hartuko dute

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Maiatzaren amaiera arte
Bizker-eko Patxi Unanueren argazki erakusketa izango da ikusgai.

EMAKUMEEN ZENTROA

Maiatzaren 16tik ekainaren 27ra
Gehituk antolatutako "Emakume eta gizon homosexualak historian zehar" erakusketa ikusgai.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN

Maiatzaren 23tik
Brancussi akademiako ikasleen IX. Margo erakusketaz gozatzeko aukera.

— Herritarren txokoa —

Odol-ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan maiatzaren 26an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Galdutako pultsera

Haur baten urrezko pultsera bat aurkitu dut inskripzio bat dauka. Deitu 620179188 telefonora. Izaskun

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren omeneko meza berezia ospatuko da maiatzaren 25ean, igandean, eguerdiko 12:30ean.

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza-katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiraleko Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Xirimiri elkarteak 25 urte... ta askoz gehiago!!

Martxoaren 12an izan zen 35/02 ize-nez ezaguna den sumarioko epaiketaren azken eguna. 5 hilabeteko epaiketaren ondoren, eta berau bukatu zenetik bi hilabete pasa direnean, epaiaren zain jarraitzen dugu. 110 elkarte eta HB/EH/BATASUNAKo zuzendaritza politikoko ezberdinak izan dira auziperatuak. Ezin ditugu ahaztu ere, 26/11 sumarioan epaitutako 36 gazteak, eta baita ere, azkenaldian beraien jardun politikoagatik atxilotuak eta espetxeratuak izan diren euskal herritarrek. Hemendik gure babes eta besarkadarak berroenak eurentzat.

Xirimiriren kasuan, epaiketa honek ondorio ezberdinak ekar ditzakeela gogorarazi nahi dugu: desjabetze arriskua, taberna eta elkarte itxi beharra, langileak kaleratzea... honi, elkarteok arduradunek Madrileren egin behar izan dituzten joan-etorriak gehitu behar zaizkio, honek suposatzen duen koste pertsonal eta ekonomikoarekin.

Gure elkartearen aurka jarduteko duten aitzakia, gure herrian egin dugun lan politikoa eta kulturala soilik

da: gure herria eta nortasuna aldarrikatzea eta bultzatzea, herriarentzat ateak zabalik edukitzea, herriari bizia ematea, herriarekin lan egitea... Horregatik zigortu nahi gaituzte. Baina gurekin batera herri oso bat zigortzen dute. Herri honetako parte bati bere ideiak defendatzea ukatzen zaion unetik, herri osoa kondenatzen dutelako.

Ez da ulergarria errepresioaren aldeko apustua egiten jarraitzea. Gutxiago oraindik, konponbidearen alde hainbeste urrats eman direnean.

Baina gu, herrian, herriarekin eta herriarentzat lan egiteko jaio ginen, eta horretan jarraitzeko konpromiso sendo eta irmoa dugu. Epaitegi arrotzak ez direlako zein, gure lana epaitzeko eta eteteko. Honek erakusle garbia da Xirimiririk azken 25 urteetan Lasarte-Oriaren egindako ekarpena. Eta hau behar den bezala ospatzeko, egitarau koloretsua, alai eta partehartzalea antolatu dugu, herriko elkarte ezberdinekin elkarlanean. Herritar librez osatutako herri librea amesten dugu, eta badugu horretarako nahikoa

ilusio eta indar. Aske izan nahi duen herri bati, inork ez diolako menperik jarriko.

Lerro hauen bidez, herritar eta herriko elkarte guztiei gonbidapena luzatu nahi diegu bertan parte hartu dezaten, eta bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu elkartasunetik konpromisora jauzi eginez egitarau honetan parte hartzerari animatu diren guztiei: herriko elkarte gastronomikoak, Ilargi taberna, urteurrenoko abestiaren egileak, Ttakun (banaiz, bagara/solaskide), begiraleak, Bertso Eskola, Ostadar, Udala, Jalgune, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Gure Etxea taberna, Trumoi taberna, Xumela, OZT, Ezker Abertzalea, musikariak, Elebeltz, herritarrek... Lasarte-Oriak herri mugimendu bizi eta dinamikoa behar duelako, segi dezagun guztion artean elkarlanean gure herria eraikitzen. Zorionak eta beste bat arte....

Maidar Izagirre
Xirimiri Elkarteok bazkidea

Desfile erraldoiak dantzan jarriko du herria

Ekainaren 3a eta 15a bitartean, 12. Antzerki eta Dantza astea ospatuko du Kukuka eskolak

Ikasturtean lan eta lan egon ostean, Kukuka eskolako dantza zein antzerki taldeetako ikasleei ikasitako guztia erakusteko garaia iritsi zaie. Ekainaren 3tik 15era Antzerki eta Dantza astea ospatuko da Manuel Lekuona Kultur Etxean. Baina gure herria prestatzen joan dadin, bihar, herriko kaleak alaitu dituzte desfile erraldoia eginez.

TXINTXARRI

Badator 12. Antzerki eta Dantza astea. Kukuka dantza eta eskolak antolatzen duen astea aurten ekainaren 3tik 15era izango da Manuel Lekuona Kultur-etxean. Ohikoa den moduan, atariko ederra izango du bihar, 18:00etatik aurrera, desfile erraldoia.

Eskolako ikasle eta irakasleak, ia 600 bat pertsona kale-aterako dira herriko kaleak dantza, eritmo eta musikaz betetzera. Baina ez hori bakarrik, Antzerki eta Dantza astea aurki gure artean izango dela ere iragarriko dute guztiak.

Bihar dantzari, zein antzezleek oholtza utzi eta herriko kaleetan barrena dantzan ikusiko ditugu. Baina hauetaz gain, klownak ere

izango dira eta hainbat ezusteko ere iragarri dituzte antolatzaileek.

Ibilbidea

Marea berdea arratsaldeko 18:00etan aterako da Manuel Lekuona kultur-etxe paretik eta jarraian, Lasarte-Oriako erdigunean haur, gazte, zein helduen dantzaz gozatzeko aukera izango da.

Ibilbideari dagokionez, Geltoki kaletik Hipodromo etorbidera egingo da, bertan Tajamar errotondaraino eta Kale Nagusiti barrena eta Ola kaleko biribilgunera iritsiko dira. Buelta emango eta Okendo plazan amaituko da desfilea.

Musika zuzenean

Kukuka Dantza eta eskolako kideek desfilerako bereziki



Marea berdeak berriz ere gure herriko kaleak hartuko ditu bihar arratsaldean. Prestatu dantzarako.

prestatutako dantzak eskainiko dituzte.

Eta adierazi digutenez, desfilean zehar musika zuzenean izango da. Honetarako Trikihots taldearen laguntza izango dute.

Gainera, Okendora iritsi eta guztiak eskolako ereserkiak dantzatzeko dute.

Eta inbidiatan izango diren herritarrek ere dantzatzeko

aukera izango dute. Izan ere, jai giroari jarraipena emateko, Trikihots taldearen erromeria izango baita.

Honek 20:00ak arte, Okendon biltzen diren oin arinak dantzan jarriko dituela aurreratu dute antolatzaileek.

Gonbita

Antolatzaileek gogorarazi nahi dute desfileko partehar-

tzaileek eskolako kamiseta edo hau izan ezean, kamiseta berde bat jantzi behar dutela.

Honetaz gain, 12. Antzerki eta Dantza astea egitaraua eta nondik norakoak aurki jakinaraziko dituztela aipatu dute.

Azkenik, Kukuka Antzerki eta dantza eskolako kideek herritarrek gonbidatzen dituzte kalera atera eta dantzaz gozatzera.

Euskal dantzaz gozatzeko eguna

Faltzes, Barakaldo, Erreterria eta Añorgako dantza taldeak Dantzari txiki egunean

Igandean ere dantzarako tartea izango da Lasarte-Oriako kaleetan. Erketz EDT-k antolatuta, XXVI. Dantzari txiki eguna ospatuko da. Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako taldeak izango dira herriko Erketz Txiki eta Kukuka Antzerki eta dantza eskolako gazte-txoekin batera. Goizean, auzo ezberdinetan eskainiko dituzte dantzak eta arratsaldean Okendo plazan izango dira guztiak.



Dantzari Txiki egunean goizean auzoetatik ibiliko dira taldeak; arratsaldean, berriz, Okendo plazan dantzatzeko dute guztiak.

TXINTXARRI

Euskal Dantzak izango dira nagusi igandean zehar Lasarte-Orian. Beste urte batez, dagoeneko 26 urte dira, Dantzari txiki eguna ospatuko da gure herrian. Sei dantza taldeetako haur eta gazte-txoek Euskal Herriko eremu ezberdinetako dantzak erakutsiko dituzte.

Gonbidatuak

Aurten Erketz Txiki taldeak

Kukuka Dantza eta Eskolako lagunak, Erreterriako Ereintza taldeko gazte-txoak, Añorgako Arkaitz Añorgako dantzariak taldea, Barakaldoko Erreka-Ortu taldeko txikiak eta Nafarroako Faltzes herriko Makaia taldeko lagunak izango ditu gonbidatu gisa.

“Añorga eta Barakaldoko taldeak lehengoz dotoz”, aipatu digute antolatzaileek.

Auzoetan dantzan

Goizetik izango dira dantza taldeak gure artean.

Lehen hitzordua, 11:00etan dute talde guztiak Isla Plazan.

11:30ak aldera, talde batzuk Atsokabar aldera, beste batzuk Sasoeta auzora eta azkenek erdiguneko hainbat gunetara, “Manuel Lekuona kultur-etxea, Zapategi, Pintore

kalea” hurbilduko dira eta bertan dantza saioak egingo dituzte.

14:00ak aldera, dantza taldeek indarrak berreskuratuko dituzte bazkari batean.

Desfilea eta saioa

Arratsaldean, 16:30ean, Okendon bilduko dira talde partehartzaile guztiak eta jarraian desfilea egingo dute.

Okendo plazatik Kale Nagusira aterako dira Tajamar aldera, bertan Hipodromo Etorbidea hartu eta Okendo plazara egingo dute.

Ibilbidearen ostean, 17:00ak inguruan, dantza ikuskizunaz gozatu ahalgo da. Talde bakoitzak prestatutako saioa ikusiko dute Okendora hurbiltzen direnek.

Amiaerian, guztiak batera arin-arin, fandango eta kalejira dantzatzeko dituzte.

Euria eginez gero, dantzaldira nagusia Kirol guneko pilotalekuan izango dela aurreratu dute antolatzaileek.

Soka dantza

Bestalde, Erketz EDT eta Erketzeko lagunak dagoeneko San Juan egun bezperako soka-dantza prestatzen hasi dira.

Entseguak astelehenero izango dira Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Zumaburuko eraikinean 19:00etatik aurrera.

Talde herritarrek gonbidatzen ditu Dantzari txiki egunaz gozatu eta soka-dantzan parte hartzera.